## LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

2747

237/1990 DEKRETUA, irailaren 11koa, Hauteskunde Sindikalen Jarraipen eta Artarako Batzordeak sortarazten dituena.

Ekainaren 13ko 1256/86 Errege Dekretuaren bidez araupetu ziren Hauteskunde Sindikaletarako Probintzia Batzordeak eta Batzorde Nagusia osatzerakoan sindikatuen ordezkariak izendatzeko erabili beharreko ordezkatze indarrik handienaren erizpidea Konstituzio Auzitegiak gaitzetsi zuen urtarrilaren 18ko 7/1990 eta otsailaren 26ko 32/1990 epaietan. Auzitegiaren ustez, hauteskundeetan eskuhartzen duten sindikatuek betetzen duten eginkizuna ez da instituzio mailako ohizko eginkizuna, eginkizun horiek Sindikatuen arteko agintepideetan eta langileek aukera aske gisa duten sindikatuen aniztasunari zor zaion begirunean artezko eragina bait dute; horregatik ez da jotzen ez bidezkoa, ez objetiboa ez eta neurrizkoa ere organu horrek dituen xede eta egitekoekiko, ordezkatze indarrik handiena duten sindikatuek soil-soilik batzorde horietan parte hartzeko aukera izatea, arau horrek gainontzeko sindikatuekiko lehentasunezko egoeran jartzen bait ditu sindikatu horiek eta, egoera hori, nabari denez, ez dago Konstituzioaren babespean eta Espainako Konstituzioaren 14 eta 28.1 atalen aurka doa.

Konstituzio Auzitegiak ordezkatze indarrik haundienanaren erizpidea bakar-bakarrik erabiltzea gaitzetzi badu ere, Batzorde ezberdinetan Sindikatuei dagokien ordezkatze atalean Erakunde Sindikal guztiek ordezkariak izatea ezinezkoa dela onartu du; horregatik, nahitaezko gertatzen da batazbesteko erizpidea finkatzea, ordezkatze indarrik handienaren erizpidea baino zabalagoa izateko eta batzordekideen kopurua Batzordeen eginkortasuna murriztu gabe gehitzeko. Izan ere, Euskal Autonomi Elkartearen eremuan %10eko ordezkatze indarra lortu duten Erakunde Sindikal guztiei Batzorde Nagusian eskuhartzeko bidea ematea erabaki da eta, halaber, Batzorde Nagusian dauden eta dagokion Lurralde Historikoan %10eko ordezkatze indarra lortu duten Erakunde Sindikalei Lurralde Batzordeetan eskuhartzeko bidea ematea.

Guzti horren ondorioz, Euskal Autonomi Elkartean ordezkatze indarrik handiena duten Erakunde Sindikalen aldezko erizpenarekin, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuaren saloz eta Jaurlaritzak 1990.eko irailaren 11n egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*— Hauteskunde Sindikalen Jarraipen eta Artarako Batzordeak sortarazten dira honen bidez, Batzorde horiek Lan eta Gizarte Segurantza Sailari atxikita egongo direnak.

Batzorde horien osakera eta iharduera Dekretu honetan ohartemandakoaren arauerakoa izango da.

*2. atala.*— Batzorde Nagusiaz.

1.— Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldea izango da Hauteskunde Sindikalen Jarraipen eta Artarako

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

2747

DECRETO 237/1990, de 11 de setiembre, por el que se crean las Comisiones de Seguimiento y Control de Elecciones Sindicales.

Las sentencias 7/1990, de 18 de enero y 32/1990 de 26 de febrero, del Tribunal Constitucional rechazaron el criterio de la mayor representatividad para la composición de la representación sindical de las Comisiones Provinciales y de la Comisión Nacional de Elecciones Sindicales, reguladas por el R.D. 1256/86, de 13 de junio, argumentando que los sindicatos que participan en las mismas no realizan una función típica de participación institucional, puesto que estas funciones inciden muy directamente en la competencia entre los Sindicatos y en el respeto de la pluralidad sindical como opción libre de los trabajadores, por lo que no es razonable, ni objetivo, ni tampoco proporcionado a la finalidad y funciones de dicho órgano que únicamente formen parte del mismo los sindicatos más representativos, puesto que les coloca en una situación de privilegiada ventaja frente a los restantes sindicatos, situación que no se encuentra constitucionalmente justificada y es lesiva de los artículos 14 y 28.1 de la Constitución Española.

Rechazada la mayor representatividad como criterio exclusivo, y admitida por el propio Tribunal Constitucional la imposibilidad de que la totalidad de Organizaciones Sindicales tengan participación en la composición de la representación sindical de las distintas Comisiones, se hace precisa la adopción de un criterio intermedio que, siendo más amplio que la mayor representatividad, no eleve el número de miembros de las Comisiones de tal forma que éstas lleguen a resultar inoperantes. Por ello se ha optado por posibilitar la participación en la Comisión Central a todas aquellas Organizaciones Sindicales que hayan obtenido el 10% de representatividad en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca, y en las Comisiones Territoriales a aquellas Organizaciones Sindicales presentes en la Comisión Central, que hayan obtenido el 10% de representatividad en el Territorio Histórico de que se trate.

Por todo ello, y con el criterio favorable de las Centrales Sindicales de mayor implantación en la Comunidad Autónoma del País Vasco, a propuesta del Consejero de Trabajo y Seguridad Social, en la sesion del Consejo de Gobierno celebrada el día 11 de Setiembre de 1990,

DISPONGO:

*Artículo 1.*— Se crean Las Comisiones de Seguimiento y Control de Elecciones Sindicales, quedando adscritas al Departamento de Trabajo y Seguridad Social.

La composición y funcionamiento de dichas Comisiones se ajustarán a lo previsto en el presente Decreto.

*Artículo 2.*— De la Comisión Central.

1. El ámbito de actuación de la Comisión Central de Seguimiento y Control de Elecciones Sindicales se

Batzordeen ihardutze eremua.

2.– Osakera: Hauteskunde Sindikalen Jarraipen eta Artarako Batzordearen osakera honako hau izango da: Lehendakari bat, Lan eta Gizarte Segurantzako Administrazioko Sailburuordea izango dena, Lehendakariorde bat, Lan Zuzendaria izango dena, eta bi ordezkari, Euskal Autonomi Elkartearen eremuan langileen ordezkariak aukeratzeko enpresetan egindako azken hauteskundeetan ordezkatze indarraren ehuneko hamarra lortu duen Erakunde Sindikal bakoitzeko.

Lehendakariak Idazkari bat izendatuko du, berba egiteko bidea izango duena baina ez botorik ematekoa.

3.– Eginkizunak: Honako hauek izango dira Batzorde Nagusiaren eginkizunak: hauteskunde sindikalen jarraipen eta artaren eginkizunak antolakidetzea, emaitzak zabaltzeko erizpideak finkatzea eta adierazitako eginkizunekiko beharrezko eritzitako erabakiak hartzea.

*3. atala.*– Lurralde Batzordeez.

1.– Euskal Autonomi Elkartea osatzen duen Lurralde bakoitzari dagokion lurraldea izango da Hauteskunde Sindikalen Jarraipen eta Artarako Lurralde Batzordeen ihardutze eremua.

2.– Osakera: Laneko Lurralde Ordezkariak izango dira Lurralde Batzordeetako lehendakariak, eta Batzorde horietan, halaber, aurreko atalean adierazitako Erakunde Sindikal bakoitzeko bi ordezkari egongo dira, hots, Euskal Autonomi Elkartearen eremuan langileen ordezkariak aukeratzeko enpresetan egindako azken hauteskundeetan ordezkatze indarraren ehuneko hamarra lortu duen Erakunde Sindikal bakoitzeko.

Lehendakariak Idazkari bat izendatuko du, berba egiteko bidea izango duena baina ez botorik ematekoa.

3.– Eginkizunak: Honako hauek izango dira Lurralde Batzordeen eginkizunak: Dagokion Lurraldean egindako hauteskundeen jarraipen eta arta egitea, arlo pribatuan zein publikoan, eta hauteskunde aktak sendestea, emaitzak orohar eta arloka zenbatu ahal izateko.

*4. atala.*– Batzorde Nagusia hilabean behin bilduko da eta, Lurralde Batzordeak astean behin bilduko dira gutxienez, bilkurak hauteskunde garaian baino ez dira egingo eta Lehendakariak egingo du horietarako deialdia.

Nolanahi ere, batzordekideen gehiengoak zioak azalduz eskatzen baldin badute ohizkoez besteko bilkurak egin ahal izango dituzte Batzordeek.

*5. atala.*– Hauteskunde emaitzak sendesterakoan sinesgarritasun haundiena bermatzeko xedez, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak sei ikuskari izendatuko ditu: Bizkairako hiru, Gipuzkoarako bi eta Arabarako bat.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.*– Dekretu honen bidez sortutako Batzordeen aldibaterako indarraldia aurtengo hauteskunde sindikaletarako aldi kontagarriak dirauen

corresponde con el Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Composición: La Comisión Central de Seguimiento y Control de Elecciones Sindicales se compondrá de un Presidente, que será el Viceconsejero de Administración de Trabajo y Seguridad Social, un Vicepresidente, que será el Director de Trabajo, y dos representantes de cada una de las Organizaciones Sindicales que hayan obtenido al menos un diez por ciento de representatividad en las elecciones a representantes de trabajadores en las empresas celebradas dentro del último período de cómputo en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Presidente designará un Secretario, con voz pero sin voto.

3. Funciones: Serán funciones de la Comisión Central la coordinación de las tareas de seguimiento y control de las elecciones sindicales, la fijación de los criterios de publicidad de los resultados y la adopción de los acuerdos que en relación a aquéllas se juzguen necesarios.

*Artículo 3.*– De las Comisiones Territoriales.

1. El ámbito de actuación de las Comisiones Territoriales de Seguimiento y Control de Elecciones Sindicales se circunscribe a cada uno de los respectivos de los Territorios que integran la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Composición: Las Comisiones Territoriales serán presididas por los respectivos Delegados Territoriales de Trabajo, y se integrarán además por dos representantes de cada una de las Organizaciones Sindicales indicadas en el artículo anterior, que hayan obtenido al menos un diez por ciento de representatividad en las elecciones a representantes de los trabajadores en las empresas celebradas dentro del último período de cómputo en el correspondiente Territorio.

El Presidente designará un Secretario, con voz pero sin voto.

3. Funciones: Serán funciones de las Comisiones Territoriales el seguimiento y control de las elecciones celebradas en su Territorio, tanto en sector privado como en el público, y la homologación de las actas electorales a efectos del cómputo global y sectorial de sus resultados.

*Artículo 4.*– La Comisión Central celebrará sus reuniones con periodicidad mensual, y las Comisiones Territoriales se reunirán al menos una vez a la semana, en ambos casos durante el periodo electoral y a convocatoria de su Presidente.

También podrán reunirse en cualquier momento con carácter extraordinario, a petición motivada de la mayoría de sus miembros.

*Artículo 5.*– Con objeto de garantizar la máxima fiabilidad en la homologación de los resultados electorales, el Departamento de Trabajo y Seguridad Social designará seis inspectores: tres para Bizkaia, dos para Guipúzcoa y uno para Alava.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– La vigencia temporal de las Comisiones creadas mediante el presente Decreto queda referida al período de cómputo electoral sindical del año en

bitartekoa izango da, Dekretu honetan aitortutako eginkizunak akitu artekoa.

*Bigarrena.*— Baimena ematen zaio Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuari Dekretu hau garatu eta ezartzeko beharrezko diren xedapen guztiak emateko.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamonean hartuko du indarra Dekretu honek.

Gasteiz, 1990.eko irailak 11.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lan eta Gizarte Segurantza Sailburua
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

curso, hasta el agotamiento de las funciones encomendadas en el presente Decreto.

*Segunda.*— Se faculta al Consejero de Trabajo y Seguridad Social para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz,
a 11 de setiembre de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Trabajo y Seguridad Social,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

# Bestelako Agintza eta Erabakiak
# Otras Disposiciones y Acuerdos

## LEHENDAKARITZA
### *EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA*

2748

ERABAKIA, 1990.eko abuztuaren 1ekoa, Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendariarena, zeinen bidez emakumezkoentzako ekintza positiboko politiketan gaitzeko ikastarora joateko bidai boltsetarako deia egiten bait da.

Enpleguari eta prestakuntzari dagozkienetan emakumezkoek aukera berberak izan ditzaten burutu beharreko politiken garapenak eta ezarpenak, bultzatu eta koordinatuko dituzten erakundeen beharraz gain, zuzentasuna, segimendua eta ebaluaketa bermatu ahal izango dituzten adituak izatea ere eskatzen du.

Ildo horretatik, eta indarrean dagoen legeriak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*— «Emakumezkoentzako ekintza positiboko politikei buruzko ikastarora» joateko 25 Bidaia Boltsa sortu ditu Emakumearen Euskal Erakundeak.

Ikastaro hori Gasteizen izango da, eta lau astetako iraupena izango du; 1990eko azaroaren 12tik abenduaren 14era bitartean burutzeko dago programatuta.

Ikastaroaren edukina, gutxienez ere, honako modulu hauek osatuko dute:

— Emakunderen zereginak eta helburuak.

— Emakumezkoen egoera Euskal Autonomi Elkartean. Deskripzioa, diagnostikoa eta analisia, arloka.

— Emakumezkoek Euskal Autonomi Elkartean dituzten oinarrizko eskubideen deskripzioa.

— Ekintza Positiborako filosofia eta politikak Europako Ekonomi Elkartean.

## PRESIDENCIA
### *INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

2748

RESOLUCION de 1 de agosto de 1990, de la Directora del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, por la que se convocan bolsas de viaje para la asistencia al curso de formación en políticas de acción positiva para las mujeres.

El desarrollo y aplicación de políticas a favor de la igualdad de oportunidades para las mujeres en el empleo y formación requieren, además de la existencia de organismos que las impulsen y coordinen, la existencia de una red de especialistas que puedan garantizar su concreción, seguimiento y evaluación.

En esta línea y haciendo uso de las facultades que la legislación vigente me confiere,

DISPONGO:

*Artículo 1.*— Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer crea 25 Bolsas de Viaje para la asitencia al «curso de políticas de acción positiva para las mujeres».

El citado curso se celebrará en Vitoria-Gasteiz y tendrá una duración de cuatro semanas, estando programada su celebración entre los días 12 de Noviembre al 14 de Diciembre de 1990.

El contenido del curso constará como mínimo de los siguientes módulos:

— Funciones y fines de Emakunde

— Situación de las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Descripción, diagnóstico y análisis por áreas.

— Descripción de la guía de derechos básicos de las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

— Filosofía y Políticas de Acción Positiva en la Comunidad Económica Europea.